

EUSKALDUNEN JOKUAK

EUSKALDUNAK beti emon izan detse inportantzia aundia edozertariko jokueri. Ta ugari bezin ederrak dira Euskalerriko jokuak edo kirolak.

Caro Baroja'k diñuanex, lurrak urri ta aldapatsuak izateak erain detaala euskaldunari ain biargiña izatia. Biarrrak berakin dakar indarra ta indarrak norgeiagokarako bidia.

Orretxegaitik esta arritzekua lurrakin ta itxasuakin burrukan bizi dan erri au ain deporte zalia izan biarra. Izan be, jokorik geientsuenak biarreko zeregiñeri lotuta darenak izan dira bertan, ta biarrerako erabili izan diran erremintzekin jokatzen dira gaur bertan be asko ta asko. Ikusi besterik ez daukagu: arrijasotzalleak, pultsulariak, palankariak, segalariak, erraumlariak, idi-probak, aiskolariak, ta abar. Euretariako asko, gau-egunian, bestelango makiña edo erremintxegaitik aldatuta darez, baña euskaldunak oindiok bere joko oituretarako erabiltzen dituez.

Biarreko gauzetatik kanporako jokuak be baditu Euskalerrriak, pelota, bolaka ta toka jokuak ditugu euren artekuak; ta orrek agiri-agirian ipintzen dau euskalduna ogiagaz bakarrik extala bizi izan. Ba eban berakin bestelango gogua be. Batez be, dantza zarreran agiri jaku garbi asko ejerzizua egiteko zaletasun bizia, ze, zenbait dantza deportiagaz beragaz nastatzeko bezelakuak diraz. Orregaitik gure Club Deportivo'an ez datoz ain gaizki dantzariak. Gorpuzarentzat onuragarri dira euskaldunen dantzak.

Jokorik geienak, euskaldunen artian, diru posturia dabe euren; askon iritziz oitura txarra. Baña, egia esan, diru trabesak beste bizigarri bat emoten detse euskaldun jokueri, ta dudarik barik, diru jokua bitartez izan ez balitz, ezagutzen ditugunetarioko joko asko ez ziran oin arterako elduko. Diru apostueri eskerrak Euskalerrriko joko zarreri cusi detselako.

OLINPIADEN ANAITASUNA

AURTEN, era barriko XVII-garren Olinpiada Jokuak izan ditugu Erroma-n, da munduko erririk geienak anaitasanian batu dira bertan. Sarri badirudi deportistak bakarrik dirala zentzuzeko gizonak.

Olinpiada barriak, lelengo aldiz, 1896-an egin ziran Atenas-en; Pierre Coubertin izan eurak barriztu zituenen animia. Ta, eztaukagu dudarik, Grezia-k gaurko zibilizariño oni laga detsazen gauzetan, Sófokles ta Eurípides-en teatruak, Pitágoras ta Sókrates-en filosofia eta Fidias edo Praxiteles-en artiekin nastaurik jaso ditugun erentziarik onenetakuak ditugula Olinpiada Jokuak.

Aintziñako Grezia-an, leyendak lausoturik galtzenda euren jatorria. Pindaro-k ziñuanex, Herakles ei zan Olinpiadak lelengo aldiz egin zituana, baña ezin geinke emon egizat. Ziur dakiguna da, aztarkizunak emoten deskuen agirietatik, Kristo baño 776 urte lenago, Korebo helendarra izan zala irabasle. Aurreragokuen izenik ezta billatzen.

Amabi siglotan errezkadan jokatu ziran Olinpiadak, Olinpiako errian. Kristo baño V eta VI siglo lenago azaldu ziran jokuak indartzuen; bolara aretan bazan girua Grezia zarriran. Gorpuzan edertasunari asko begirutzen zetsen greziarrak; orduan eskintza guxtiak ziran, Pidon-ek bere ikasleri esaten zetsen crakuak: «Azkarrago, gorago, indartsuago!». Berba orretxek diraz gogoako edertasunaren agertu biarra, gizonaren borondate indarrak lagunduz.

Gerora, Olinpiadak, poliki-poliki makalduz etorri ziran.

394-garren urtian, Teodosio Erroma-ko enperadorian aginduz kendu ziran. Baña, ordurako, joko arek, oso biurtuak ziran; politika ta profesionalismua azpianian zebizen. Orrez gañera, beste errazoi bat pe izan zan, jentillen elijiñuari obeitzen zetselako, kristaumentzat ikusiak ziran. Olako gauzak ekarri eben jokuen ondamendia.

Gaurko jokuak pe ezdeitezela jausi nazifiuen gorrotuetara ta azpianera. Arrisku orretara ez joteko, eztaukigu Coubertin-ek ez ete eban izan errazoiak, ze, berak gura ebana zan, ekipuen da nazifiuen izenak baztatu ta gizon bakotxarenak goratu.

Dana dala, gure kiroltzale biotzak eskeñi deiguzen, anaitasanak

Euskaldunak beretzo ajiltasuna badau, biarrari ta bere jokuari zor deratsala esango genduke, batez be, bere jokueri ta dantzeri, iru gauzak diraz alkarri lotuta darenak. Millaka urtiak ziar saltoka, aintxixika ta indarka agertu izan da euskalduna, erronartarrak oian ezautu zituen. Erdi-Aroan Inlaterra'n esaera bat euan oso zabaldua: «To run like a vasque» (euskaldunak bezela citen dau aintxixika), ta geruago andik zabaldu zan Frantzia'ra be antzerako esaera bat. Voltaire'k mundu guztian zabaldu eban bere esaera $\frac{\pi}{2}$ Euskalerrrian ezaugarri: «Pirineo gañian dantzan egiten daben erri txiki bate».

Gaur berriz norik ez dau ezauten pelota jokua, Euskalerritik mundu guztira zabaldu dan jokua. Pelota jokuak Iparragirre'n deia ondo bete eban: «eman da zabalzazu munduan frutuak». Gareñako jokuekin be ori bedori egingo balitza obe.

Orrez gañera, ez uste izan eziranik goragoko malla bat merezi eztabenik. Esate baterako or daukagu paianka jokua. Oin dala lau urte, jabalina, euskaldunak palankia bezela jaurtzen au ziranian, munduko rekorra tapau eben ta kiroltzale asko larritu zian eta orduan ipiñi eban jaurtzeko lege barri zan palankariak eben jaurtzeko teknika ez zala edozelangua, garbi dago noiz bait ondo estudiantua izan zala.

Baña, erri txiki bat izatiagaz, era askotako kaltiak izan ditu Euskalerrriak; mundo onetan ezta txirikirik aintzakotzat artzen, animalien legiak dira oindiok nausi gizonen artian ta aundiak txikia jaten dau. Ori da errazoi bakarra euskaldunen jokuetatik bat bera be Olinpiada Jokuetan ez agertzeko.

S. M. Y.

(Club Deportivo boletifietik artua).

PENTSAMENTUAK

Kristuauk alkarrekin eta artzaiekin, Jerarkiakin, batu bear gera. Lendabizi alkarren artean maite izan bear gera, gorroto zarrak alde batera utzirik. Amaika atsekabe, eriotza eta kalteak ikusi ditugu gorrotoak eta gerrate zitalak ekarrita. Noiz edo noiz aztu ditugun betiko ezin-ikusiak. Or ditugu, prantzitarrak eta alemanikoak orain urte gutxi etsai amorratuak izanik, orain pakean eta alkarren lagun. Aita Santuak sarri esan digu: egiaren bitartez biotzak paketu egin biar dirala. Gorrotoa eta asarrea piztuten duan dotriña, ezta Kristo'rena. Jesus'ek beti maistasuna erakutsi zigun.

Aprika eta Asia'ko erriak ez ditezela kristau errietatik aldendu: au izan bear da gure asmoa.

Aprika'ko erriak geyenak oraintsu arte, Europa'ren azpian bizi izan dira. Orain, ordea, azkatasuna iritxi dute. Orregaitik pozez txoratzen daude. Elciz katolikoa ta mixiolariak beti, erri oien azkatasunaren alde jokatu dute. Orregaitik mixiolari katolikoak orain, ondo artuak izan dira. Europatar zuriak ez dira beti ondo partatu izan aberri oiekin. Kongo'n eta beste errietan jasotzen diran nastak eta gorrotoak, antziñako gaitzaren sustrayak dituzu. Mundu guztia pake ditela Jesus'en Biotzari ekatu dezaiozun.

jarraitu deian, Pidon-en esana geuretzat arturik: «Azkarrago, gorago, indartsuago!».

(Club Deportivo boletifietik artua).